

Egitaraua

Uztailak 22

Konstituzio Plaza – Skoda Gunea. Sarrera doan.

Jazzetik Soulera

19:00. **Organ Summit. *The Battle of the B-3s***

21:30. **Sky Beats**

23:30. **Labelle DJ**

Uztailak 23

Konstituzio Plaza – Skoda Gunea. Sarrera doan.

Jazzetik Soulera

19:00. **Edmond Bilal Band**

21:30. **Broken Brothers Brass Band**

23:30. **Labelle DJ**

Uztailak 24

Konstituzio Plaza – Skoda Gunea. Sarrera doan.

Jazzetik Soulera

19:00. **Paul San Martín & Romain Gratalon**

21:30. **The Bronson: *The Bronson Circus***

23:30. **Labelle DJ**

Uztailak 25

Konstituzio Plaza – Skoda Gunea. Sarrera doan.

Jazzetik Soulera

18:30. **Paul San Martín & Romain Gratalon**

21:00. **The Bronson: *The Bronson Circus***

Artistak

Organ Summit. *The Battle of the B-3s*

Phil Wilkinson (Hammond organoa), **Ben Paterson** (Hammond organoa), **Dave Wilkinson** (gitarra), **Leon Parker** (bateria)

Pianoko duok tradizio errotua dute jazzean: Fats Waller eta Benny Payne 1930eko hamarraldian, Joe Bushkin eta Willie "The Lion" Smith 40ko hamarraldian, eta, berrikiago, Hank Jones eta Tommy Flanagan, edota Mulgrew Miller & Kenny Barron. Pianistek gozatu handiak hartu izan dituzte ideia musikalen trukean oinarritutako horrelako "gudaldi" adiskidetsuetan. Kontzeptu bera aplika daiteke beste tekla-instrumentu batzuetara ere, baina Hammond organoen arteko duoak oso bakanak izan dira, Joey DeFrancesco eta Jimmy Smithen grabatutako diskoak bezalako salbuespen batzuk kenduta. Orain, ordea, Ben Patersonen eta Phil Wilkinsonen, beren belaunaldiko organista onentsuenetako bik, erronkari heldzea erabaki dute. Gauza segurua da horrelako "borroka" batean, erritmo-sekzio eraginkor bat lagun dutela, ez dela swing faltarik izango.

Sky Beats

Lidia Insausti (ahotsa), **Sergio Villar** (gitarra), **Manu Gestido** (baxua), **Gustavo González** (bateria)

Sky Beats 2012an sortu zen Donostian, Gus Gonzalezek, Manu Gestidok eta Sergio Villar-ek Lidia Insausti abeslaria ezagutu zutenean eta bluesaren, soularen eta jazzaren iturrietatik edanik, haiek funkyaren eta pop/rockaren erritmoekin fusionatuko zituen talde bat egitea erabaki zutenean. 2015ean, Jazzaldian hirugarren urtez segidan parte hartu ondoren, eurek konposatutako lau abesti jaso zituzten Jazzaldiaren 50. urteurreneko edizio bereziko EP batean. Taldearen azken LPa, Mecca Recording Studio-n grabatua, 2016aren hasieran argitaratu da *Ad Libitum* izenburuarekin.

Labelle DJ

Reunion uhartean jatorria duen frantses musikari honek elektronikaren eta "maloya"-ren (uharteko kantu tradizionala) fusio sinesgarria egiten du, ukitu indiar eta afrikar batzuekin. Hori guztia modernitate esparru batetik irten gabe, folklorismoan erori gabe, eta musika dantzagarria sortzeko intentziaz, betiere.

Edmond Bilal Band

Paul Robert (saxoa), **Curtis Efoa-Ela** (bateria), **Mathias Monseigne** (baxua, gitarra), **Simon Chivallon** (teklatuak)

Edmond Bilal Band-ek bere unibertso propioa eraiki du gaur egungo hainbat eragin fusionatzearen bitartez. Inprobisazioa, konposizioa, akustikoa eta elektrikoa nahasten dira talde honen musikan. Aspaldiko lagunak izanik, duela bost urte sortu zuten taldea lau musikariek. Hainbat sari irabazi dituzte Frantzian eta jaialdi garrantzitsuetan hartu dute parte, Marciac-ekoa barne dela.

Broken Brothers Brass Band

Ion Celestino (tronpeta), **Mario Díaz de Rada** (tronpeta), **Eneko Urrestarazu** (tronboia), **Txarli Otsoa De Aspuru** (tronboia), **Adrián Martínez** (tronboia), **Iñaki Rodríguez** (saxofoi baritonoa), **Juan Pedro Medrano** (sousafonoa), **Alfonso Areta** (sousafonoa), **Jon Uribe** (dunbala), **Gorka Gaztambide** (kaxa), **Daniel Lizarraga** (pandereta)

Broken Brothers-en musika New Orleanseko brass band garaikideen soinuan oinarritzen da. Funkez, gospelez eta jazz modernoak kutsatuak daude taldearen interpretazio indartsuak, non garrantzi ikaragarria duen inprobisazio kolektiboak. Hainbat agertoki eta kaletan jo izan dute: Heineken Jazzaldian, Jazz al Margen deituan (Zaragoza), Haizetara kaleko banden jaialdian (Zornotza) eta edozein herritako jaietan.

Paul San Martín & Romain Gratalon

Paul San Martín (pianoa, ahotsa), **Romain Gratalon** (bateria)

Paul San Martín (Donostia, 1979) pianista eta abeslaria eta Romain Gratalon (Dax, 1989) bateria-jotzailea ibilbide luzeko bi musikari dira. Bira batean ezagutu zuten elkar, Nico Wayne Toussaint frantses harmonizista handiaren laguntza lanetan ari zirela. Lehen unetik moldatu ziren ongi elkarrekin eta bikote bat sortzea erabaki zuten Memphis Slim & Michel Denis inspiraziotzat hartuta. Kontzertu asko eskaini dituzte Frantzian (Paris, Bordele, Paue...), eta harrera bikaina izan dute beti ikus-entzuleen aldetik, iaz beren proiektua Heineken Jazzaldian aurkeztu zutenean gertatu zen bezala.

The Bronson: *The Bronson Circus*

Earl Bronson (ahotsa), **Pipi Bronson** (ahotsa), **Pat Bronson** (gitarra), **Joe Bronson** (baxua), **Bronson Junior** (bateria), **GinTonic Bronson** (teklatuak), **Doña Bronson** (saxo tenorra), **Enriki Bronson** (saxo baritonoa), **Julay Bronson** (tronpeta), **Emo Bronson** (tronboia), **Botón Bronson** (VJ)

Zaragozako banda "zoro" bat da The Bronson. Zinemaren historiako aktore gogorrenetako bat omentzen du taldearen izenak: Charles Bronson handia. The Bronsonen kontzertuetan bermatuta egoten da festa, parranda, irabioa eta ongi pasatzea. Haien Spaghetti Funkak triskantzak egiten ditu doan lekuan eta bandaren errepertorioan, konposizio propioak ez ezik, Kool & The Gang, Prince eta 70 eta 80etako musika beltzeko hainbat erraldoiren bertsioak sartzen dira.